# Seamos refugio. Acoger sin discriminar

20 de junio – Día Mundial de las Personas Refugiadas

Hoy es el Día Mundial de las Personas Refugiadas. Y es inevitable empezar denunciando que el pasado mes de mayo se ha aprobado finalmente el Pacto sobre Migración y Asilo de la UE, un pacto que vulnera los derechos humanos de las personas que intentan llegar a un lugar seguro y pone precio a sus vidas. El Pacto sobre Migración y Asilo de la UE instaura procedimientos que amplían tiempos de espera, espacios de excepción, tiempos de detención que ponen en riesgo derechos fundamentales. La externalización de fronteras y los retornos a terceros países generan mecanismos de solidaridad "a la carta" y permite que las fronteras europeas sean espacios de no derechos.

La defensa de los derechos humanos y la promoción de un sistema más justo y solidario para todas las personas en situación de vulnerabilidad debería estar en el centro y no los discursos de odio que se promueven, principalmente, desde la extrema derecha.

En 2023, un total de 4.064 personas murieron o desaparecieron en las aguas del Mediterráneo; y en lo que llevamos de año (31 de mayo de 2024) la cifra asciende a 923 personas que han perdido la vida en su camino hacia Europa, según datos del proyecto Missing Migrants de la Organización Internacional para las Migraciones (OIM). En cifras totales, en estos últimos 10 años un total de 29.827 personas han fallecido o desaparecido en estas aguas desde 2014 hasta hoy (31 de mayo de 2024).

Durante este 2024 han disminuido las llegadas a través de la ruta por el Mediterráneo Central y han aumentado las rutas por el Mediterráneo Oriental y el África Occidental (Mauritania, Senegal y Gambia), que continuó registrando números récord, con llegadas entre enero y marzo llegando a más de 13.500, según FRONTEX. La ruta canaria, a través del océano Atlántico, vuelve a ser la región migratoria más letal del mundo.

El año pasado se registraron 6.153 solicitudes de asilo en Euskadi y 163.220 en el Estado español. En lo que llevamos de año (hasta el 31 de mayo de 2024) se han registrado un total de 3.300 solicitudes de en Euskadi y 73.130 a nivel estatal, una tendencia que de continuar así superaría las cifras de 2023.

A pesar de que España es el tercero en el ranking de países con más solicitudes de la UE, las que finalmente se aprueban son muy pocas. Es cierto que en 2022 la cifra aumentó ligeramente hasta llegar al 16% de solicitudes aprobadas, pero este 2023 ha vuelto a bajar al 12%. El reconocimiento de la protección internacional en España sigue siendo bajo ya que está a la cola del conjunto de la UE, donde el 41,8% de las personas solicitantes recibieron una resolución favorable.

Las personas que huyen de sus hogares y abandonan sus países por las múltiples violencias, desigualdades, guerras ocultas y de gran escala (Palestina, Ucrania...) que sufren no cesa, sino que esa persecución cambia al llegar a destino, se transforma y se materializa en racismo y discriminación y se vuelve su realidad cotidiana. Es fundamental sensibilizar y

formar a la ciudadanía para erradicar estas situaciones y construir sociedades diversas, inclusivas y equitativas.

Cuando hablamos de acoger, no solo hablamos de alojar, de ofrecer un techo. Nos referimos a que reconozcamos a las personas refugiadas como parte de la sociedad vasca que formamos, que conozcamos su historia, su cultura, que valoremos trayectoria y conocimientos y les acerquemos la nuestra para que entre todas compartamos espacios, vivencias y fomentemos una verdadera convivencia intercultural.

Por todo ello, REIVINDICAMOS:

- Garantizar que las personas migrantes y refugiadas puedan llegar tanto al Estado español como a Euskadi sin poner su vida en riesgo, facilitando vías de regularización de acceso legales y seguras.
- Asegurar el acceso al derecho de asilo a todas las personas independientemente de su país de origen a través de un estudio individualizado de los casos, que garantice y respete el derecho a la protección internacional sin discriminar a nacionales de países cuyas solicitudes están siendo denegadas, como es el caso de Colombia, Perú o Senegal, entre otras.
- Promover la eliminación de la criminalización y persecución de las organizaciones que brindan salvamento marítimo humanitario.
- Implantar un sistema de citas ágil que haga factible el derecho a solicitar asilo.
- Asegurar sistemas de acogida a personas solicitantes de protección internacional con procesos de inclusión efectivos que den respuesta a todas las personas que lo necesitan, impidiendo el sinhogarismo.
- Garantizar el empadronamiento a través de los servicios sociales para aquellas personas que no puedan hacerlo de manera normalizada, con el fin de asegurar su acceso a los derechos y obligaciones correspondientes.
- Garantizar el acceso a vivienda social, recursos y prestaciones sociales, educativas, sanitarias y culturales estableciendo criterios que contemplen las dificultades de las personas con necesidades de protección internacional y apátridas. Es necesario tener en cuenta el acceso de personas en especial situación de vulnerabilidad, como las mujeres y personas LGTBIQ+ que han sufrido persecución por motivos de género o están viviendo violencia machista y LGTIBQ+fobia.
- Facilitar acceso a la red de atención de salud mental o a dispositivos grupales de trabajo psicológico que faciliten que las personas se recuperen de las situaciones traumáticas de las que vienen.
- Habilitar vías de regularización extraordinaria que permita a las personas migrantes y solicitantes de asilo denegadas acceder a un estatus legal regular.
- Dotar a todas las políticas públicas de un enfoque intercultural y antirracista, así como de diversidad sexual, de género y feminista.
- Diagnosticar y erradicar, cuando se detecte, toda forma de violencia y racismo

institucional.
- Hay que poner fin a las identificaciones policiales por perfil racial, a través de la formación y sensibilización a los cuerpos de policía sobre interculturalidad y migraciones, desde una perspectiva positiva.
- Impulsar proyectos comunitarios para fomentar la convivencia.
- Combatir los discursos discriminatorios y xenófobos adoptando medidas de prevención y monitoreo y garantizar el diseño e implementación efectiva de planes de integración, convivencia, igualdad y no discriminación en todos los niveles de la administración desde un enfoque comunitario y con la asignación presupuestaria necesaria.
- Cesar los controles fronterizos terrestres en la frontera de Euskadi con Francia que se practican por perfil étnico.
- Detener el comercio de armas, que alimenta los conflictos y las guerras que están detrás de muchos de los desplazamientos forzados, y que contribuye a cometer graves violaciones de Derechos Humanos.
- Impulsar dinámicas de inversión, producción, distribución y consumo que no desplacen y garanticen la sostenibilidad de la vida y el planeta.
- Garantizar, a través de un marco legislativo que contemple mecanismos de control y rendición de cuentas, el principio de coherencia de políticas para el desarrollo asumido por el propio Gobierno Vasco y las diputaciones, para avanzar en el respeto y la garantía del Derecho Internacional de los Derechos Humanos y en el cuidado del medio ambiente.
- Promover el desarrollo de compromisos, acciones concretas e indicadores de implementación de la Agenda 2030 específicos sobre las situaciones que están generando desplazamientos forzados y los mecanismos de acogida y protección internacional para quienes los sufren.
- Promover que el gobierno adopte medidas excepcionales y adecuadas a la gravísima situación que atraviesa el pueblo palestino.

ADHESIONES:

- Zehar-Errefuxiatuekin
- Lumaltik
- CEAR en Euskadi
- Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia
- Aldarte
- Mulisol
- Caminamos para crecer
- Bigite Elkartea
- Batikumba
- Asociación de Inmigrantes de Ghana En Bizkaia
- SOS Racismo Gipuzkoa

- Red Atenea España
- Kolore Guztiak
- Denon Elkartea
- Hiritarron harrera sarea / Red acogida ciudadana
- Salvamento Marítimo Humanitario
- Bake ekintza Antimilitarista
- Donostiako Saharako Lagunen Elkartea
- GOT
- Ongi Etorri Errefuxiatuak Gipuzkoa
- Oxfam Intermón Donostia
- Hotz-Zarautz
- Asociación Matiz
- Ongi Etorri Errefuxiatuak Araba
- Bachue Elkartea
- Amnistía Internacional
- Asociación Matiz
- Entretanto Entretente - Bitartean jolasean

( zehar )
errefuxiatuekin

## Izan gaitezen babes. Bereizketarik gabeko harrera

### Ekainak 20 – Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna

Gaur Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna da. Eta ezinbestekoa da salatzen hastea joan den maiatzean onartu zela azkenean EBren Migrazio eta Asiloari buruzko Ituna, leku seguru batera iritsi nahi duten pertsonen giza eskubideak urratzen dituen eta haien bizitzei prezioa jartzen dien ituna. EBko Migrazio eta Asiloari buruzko Itunak itxaronaldiak, salbuespen-espazioak eta oinarrizko eskubideak arriskuan jartzen dituzten atxilotze-denborak zabaltzen dituzten prozedurak ezartzen ditu. Eskualdeen mugak kanpora ateratzeak eta hirugarren herrialdeetara itzultzeak "nahierara" elkartasun-mekanismoak sortzen ditu, eta Europako mugak eskubiderik gabeko guneak izatea ahalbidetzen du.

Giza eskubideen defentsak eta kalteberatasun-egoeran dauden pertsona guztientzako sistema bidezkoago eta solidarioago baten sustapenak erdigunean egon beharko lukete, eta ez "eskuin muturretik" nagusiki sustatzen diren gorroto-diskurtsoek.

2023an, 4.064 pertsona hil edo desagertu ziren Mediterraneoko uretan; eta aurten (2024ko maiatzaren 31rarte) 923 pertsona hil dira Europarako bidean, Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearen (OIM) Missing Migrants proiektuaren arabera. Guztira, azken 10 urteetan, 2014tik gaur arte (2024ko maiatzaren 31), 29.827 pertsona hil edo desagertu dira ur horietan .

2024an gutxitu egin dira Erdialdeko Mediterraneoan zeharreko iritsierak, eta gora egin dute Ekialdeko Mediterraneoan eta Mendebaldeko Afrikan zeharreko ibilbideek (Mauritania, Senegal eta Gambia), FRONTEXen esanetan. Kanarietako ibilbideak, Ozeano Atlantikoan barrena, munduko migrazio-eskualde hilgarriena izaten jarraitzen du.

Iaz 6.153 pertsonak eskatu zuten asiloa Euskadin, eta 163.220k Espainiako Estatuan. Aurten (2024ko apirilaren 30era arte), 3.300 eskaera erregistratu dira guztira Euskadin, eta 73.130 Estatu mailan. Joera horrek aurrera jarraituz gero, 2023ko zifrak gaindituko lituzke.

EBn eskaera gehien dituzten herrialdeen rankingean Espainia hirugarrena den arren, azkenean onartzen direnak oso gutxi dira. Egia da 2022an kopuruak gora egin zuela pixka bat, onartutako eskaeren % 16ra iritsi arte, baina 2023an % 12ra jaitsi da berriro. Espainian, nazioarteko babesaren aitorpenak txikia izaten jarraitzen du; izan ere, EB osoaren atzetik dago, eta eskatzaileen % 41,8k aldeko ebazpena jaso zuten.

Beren etxeetatik ihes egin eta beren herrialdeetatik alde egiten duten pertsonek, pairatzen dituzten indarkeria, desberdintasun, gerra ezkutu eta eskala handiko gerra ugariengatik (Palestina, Ukraina...), ez dute etenik, aitzitik, jazarpen hori aldatu egiten da helmugara iristean, arrazakeria eta diskriminazio bihurtzen da eta haien eguneroko errealitatea bihurtzen da. Funtsezkoa da herritarrak sentsibilizatzea eta hezitzea egoera horiek desagerrarazteko eta gizarte askotarikoak, inklusiboak eta bidezkoak eraikitzeko.

Harrera egiteaz ari garenean, ez gara soilik ostatu emateaz ari, sabai bat eskaintzeaz. Esan nahi dugu errefuxiatuak osatzen dugun euskal gizartearen parte gisa onar ditzagun, haien historia eta kultura ezagutu ditzagun, ibilbidea eta ezagutzak balora ditzagun eta gurea hurbil diezaiegun, guztion artean espazioak eta bizipenak partekatu ditzagun eta kulturarteko benetako bizikidetza susta dezagun.

Horregatik guztiagatik, ALDARRIKATZEN DUGU:

- Bermatzea migratzaileak eta errefuxiatuak Espainiako Estatura eta Euskadira iritsi ahal izango direla, bizitza arriskuan jarri gabe, eta sartzeko bide legal eta seguruak erraztuz.
- Pertsona guztiek asilo-eskubidea izango dutela bermatzea, jatorrizko herrialdea edozein dela ere. Horretarako, kasuak banan-banan aztertuko dira, eta nazioarteko babeserako eskubidea bermatu eta errespetatuko da, eskaerak ukatzen ari zaizkien herrialdeetako (Kolonbia, Peru edo Senegal, besteak beste) herritarrak baztertu gabe.
- Itsas salbamendu humanitarioa eskaintzen duten erakundeen kriminalizazioa eta jazarpena desagerraraztea sustatzea.
- Hitzorduen sistema arin bat ezartzea, asiloa eskatzeko eskubidea egingarri egiteko.
- Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonei harrera egiteko sistemak ziurtatzea, gizarteratzeko prozesu eraginkorrekin, behar duten pertsona guztiei erantzuteko eta etxegabetasuna eragozteko.
- Erroldatzea bermatzea, gizarte-zerbitzuen bidez, modu normalizatuan egin ezin duten pertsonei, dagozkien eskubide eta betebeharretarako irispidea ziurtatze aldera.
- Etxebizitza sozialerako, gizarte-, hezkuntza-, osasun- eta kultura-baliabide eta -prestazioetarako sarbidea bermatzea, nazioarteko babes-premiak eta aberrigabeak dituzten pertsonen zailtasunak kontuan hartuko dituzten irizpideak ezarriz. Kontuan izan behar da bereziki kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak sar daitezkeela, hala nola genero-arrazoiengatik jazarpena jasan duten edo indarkeria matxista eta LGTIBQ+fobia jasaten ari diren emakumeak eta LGTBIQ+ pertsonak.
- Osasun mentaleko arreta-sarerako edo lan psikologikorako taldeko baliabideetarako sarbidea erraztea, pertsonak datozen egoera traumatikoetatik sendatzen laguntzeko.
- Ezohiko erregularizazio-bideak gaitzea, ukatutako migratzaileek eta asilo-eskatzaileek legezko estatus erregularra eskura dezaten.
- Politika publiko guztiei kulturarteko eta arrazakeriaren aurkako ikuspegia ematea, bai eta sexu- eta genero-aniztasuna eta aniztasun feminista ere.
- Antzematen denean, indarkeria eta arrazakeria instituzionalaren mota guztiak diagnostikatzea eta desagerraraztea.
- Arraza-profilaren araberako polizia-identifikazioei amaiera eman behar zaie, polizia-kidegoak kulturartekotasunari eta migrazioei buruz hezituz eta sentsibilizatuz, ikuspegi positibo batetik.
- Bizikidetza sustatzeko proiektu komunitarioak bultzatzea.
- Diskurtso diskriminatzaile eta xenofoboei aurre egitea, prebentzio- eta monitoretza-

neurriak hartuz, eta integrazioko, bizikidetzako, berdintasuneko eta diskriminaziorik gabeko planen diseinu eta inplementazio eraginkorra bermatzea administrazioaren maila guztietan, ikuspegi komunitario batetik eta beharrezko aurrekontu-esleipenarekin.
- Euskadiren eta Frantziaren arteko mugan profil etnikoaren arabera egiten diren lurreko mugako kontrolak etetea.
- Armen merkataritza gelditzea, behartutako desplazamendu askoren atzean dauden gatazkak eta gerrak elikatzen dituena eta Giza Eskubideen urraketa larriak egiten laguntzen duena.
- Inbertsio-, ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-dinamikak sustatzea, bizitzaren eta planetaren iraunkortasuna bermatu eta lekualdatuko ez dutenak.
- Garapenerako politiken koherentziaren printzipioa bermatzea, Eusko Jaurlaritzak berak eta aldundiek onartutakoa, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen errespetuan eta bermean eta ingurumenaren zaintzan aurrera egiteko.
- Konpromiso, ekintza zehatz eta 2030 Agendaren inplementazio-adierazle espezifikoen garapena sustatzea, behartutako desplazamenduak sortzen ari diren egoerei eta horiek jasaten dituztenentzako nazioarteko harrera- eta babes-mekanismoei buruz.
- Gobernuak Palestinako herriak bizi duen egoera larrira egokitutako salbuespenezko neurriak har ditzan sustatzea.

ATXIKIMENDUAK:
- Zehar-Errefuxiatuekin
- Lumaltik
- CEAR en Euskadi
- Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia
- Aldarte
- Mulisol
- Caminamos para crecer
- Bigite Elkartea
- Batikumba
- Asociación de Inmigrantes de Ghana En Bizkaia
- SOS Racismo Gipuzkoa
- Red Atenea España
- Kolore Guztiak
- Denon Elkartea
- Hiritarron harrera sarea / Red acogida ciudadana
- Salvamento Marítimo Humanitario
- Bake ekintza Antimilitarista
- Donostiako Saharako Lagunen Elkartea
- GOT

- Ongi Etorri Errefuxiatuak Gipuzkoa
- Oxfam Intermón Donostia
- Hotz-Zarautz
- Asociación Matiz
- Ongi Etorri Errefuxiatuak Araba
- Bachue Elkartea
- Amnistía Internacional
- Asociación Matiz
- Entretanto Entretente - Bitartean jolasean